



Euskaldunon aintzinako arbola sakratua gaixorik dago.

AITOR BAYO

## Gernikako Arbola gaixorik eta sendatzeko tratamenduan dago

Z. ZAMAKOLA / BILBO


Gernikako Arbola hainbat gaixotasunak jota dago, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek Zaragozako enpresa aditu bat kontratatu du 120 urte inguru dituen zuhaitza osasun egoerara bueltatzeko.

Anton Aurre Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak atzo emani-ko prentsaurrekoan baietsi egin zuen atzo bertan 'Egin' egunkariak kale-erutako informazioa, eta azaldu zuen Arbolaren osasun egoera «nahi genukeena baino txarragoa» den

arren, 'Ingenica' enpresak lan egokia egingo duen ziurtasuna duela.

Aurreren esanetan, aintzinako Espainiako Erresumako erregeek foruei zin egiteko eta gaur egungo Euskal Autonomi Elkarte buruzagiek Estatutuari zin egiteko erabiltzen duten Arbola gaixotasun «garrantzitsuak» dauzka.

Batzar Nagusietako lehendakariak baietsi zuen asmoa dagoela erroaren ingurua garbitu eta lurrak hongarri nahikoa ote daukan aztertzeko, eta hala ez bada arazoa konpontzeko; horretaz gain, ureztatze sistema berezia ezarriko zaio.



## ORDIZIAKO AZOKA

### Ardiaren gazta berria izan zen atzoko nobedade nagusia

ANA IRASTORZA / ORDIZIA

Ardiaren gazta berria izan zen atzo nobedadea. Kiloa 1.300 pezeta saldu zen. Gainontzean, baxeritar ugari nahiko haserre azaldu zen atzo, arkumearen prezioa nahiko baxua zelako. Saltzeko zailtasunak izan ziren eta prezioa jaitsi beharrean izan ziren ondorioz.

#### BERTAKO PRODUKTUAK

Abereak: arkumeak, 400-450 pezeta; antxumeak, 450-475; untxiak, 270-300; oilagorak, 1.600-1.700. Gaztak: ardiarena berria, 1.300 pezeta. Barazkiak: Urrak, 300; azaloreak, 50-150; eskarolak, 50-75; letxugak, 70-100; sagarrak, 300-800.

#### KANPOKO PRODUKTUAK

Alkatxofak, 295 pezeta; Valencianako herburuak, 275; azaloreak,

200-250; kiwiak, 250; letxugak, 80-100; limoiak, 125-175; laranja berriak, 75-130; udareak, 225-250; bananak, 250-300; piper berdeak, 225-240; piper gorriak, 290; ananak, 280; tomateak, 250-280; kardaberak, 250-350; lekak, 425-500; mandarinak, 120-125; sagarrak, 100-250; granadak, 250.

#### ARRAINAK

Antxoa, 700 pezeta; antxoila, 980; txixardinak, 32.000; bakailaoa, 1.300; kariokita, 1.300; txixarroa, 430-800; kraba, 880; itsas oilarra, 1.460; mihi arraina, 1.600; libita, 650; mediana, 2.100; perlita, 660; perloia, 750; liba, 1.200; potak, 430; merlenka, 1.600; zapittoa, 1.100; sardina, 480; amorraina, 650; txipiroia, 1.050; izokina, 1.200; andeja, 1.080.

## Valderejon dagoen Arabako lehen parke naturala aurkeztu zen atzo

3.503 hektareatan Euskal Herriko putregegi nagusienetako bat da

**E**usko Jaurlaritzak asteartean izendapen ofiziala eman eta gero, Valderejoko parke naturala aurkeztu zuten atzo. Arabako lehena da, Gaubealdean dago eta Burgoseko lurralde batzuk ere hartzea nahi dute. Parkeak dituen 35 kilometro karratuetan Euskal Herriko putregegi nagusienetako bat dago.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ



Arabak Burgosekin lotzen duen inguruan —Gaubealdean— dagoen Valderejoko parke naturala aurkeztu zuten atzo Gasteizen izan zen prentsaurrekoan Alberto Ansola Arabako diputatu nagusiak eta Jose Manuel Goikoetxea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuak. Valderejoko parkeari izendapen ofiziala eman zion Eusko Jaurlaritzak iragan asteartean.

Euskal Herriko putregegi nagusienetako bat du 35 kilometro karratutan zehar eta flora nahiz faunaren aldetik «oso alderdi aberatsa» dela jakin erazi zuten aurkezpenean. Pagadiak eta basapinuak ugari ditu Valderejoko parkeak eta dituen lau herrisketatik —Lalastra, Lahoz, Villamardones eta Ribera— azken biok biztanleririk gabe daude 1981. urteaz geroztik.

Burgoseko zenbait lurraldetan ere sartzea nahi dutenez, Jose Manuel Goikoetxeak espero du «inguruok ere parke natural izendatzea Castilla-Leoneko Juntak, zuzenena litzateke eta». Dena dela, horretarako legearen aldetik zenbait arazo badi-



Valderejon Euskal Herriko putregegi nagusienetako bat dago.

OLAIDE

rela zehaztu zuen. Bestetik, Valdegullean dauden putre areek Euskal Autonomi Elkarte putregegi nagusiena osatzen dute. Baso azalera 1.167 hektareakoa da, abelazkuntzarakoa 1.276koa, nekazal azalera 369koa eta alderdi antzuek betetzen dute gainontzekoa.

#### URKIOLAKOA ETA LAU GIPUZKOAN

Alberto Ansola diputatu nagusia «pozik» azaldu zen parke natural izendatu izanagatik, «horrek babesteko neurriak dakartzalako». Jose Manuel Goikoetxea sailburuak, bestalde, Valderejoko parkeak «herri inguruaren garapena eta ingurugiroaren kontserbazioa aldi berean elkartuko» dituela azpimarratu zuen. Ildo horretan, «eskuarki» denboraren poderioz

parke naturalak «gehienbat zerbitzuzune eta ez produktuzune» bihurtzen direla adierazi zuen.

Eusko Jaurlaritzak parke naturalak bultzatzeko politika barruan Valderejoko sartzan dela esan zuen Jose Manuel Goikoetxeak. «Arabako aurrena izan arren, aurki Urkiolakoa ere izango dugu, eta gero Gipuzkoan lau parke jarriko ditugu martxan», informatu zuen Nekazaritza kontseilariak.

Hemendik aurrera kudeaketa «handiena» Arabako Foru Aldundiari dagokiola zehaztu zuen, baina Valderejoko parke naturalean izandako «instituzioen arteko lana» nabarmendu zuen, «inguruko biltzar administratibo edo Gaubeako Udaletik hasita eta Diputazio edo Eusko Jaurlaritzara iritsi arte».

## Hendaiako industri sektoreak herrian hipermerkatua egiteko xedea salatu du

M. ESTEBAN / HENDAIA



Atzo arratsean, Hendaiako Udal Batzarraren barne bileran, autoportuan jar litekeen hipermerkatuaren xedea eztabaidatu zuten. Bilera hau arratsaldeko 18.30etan hasi zen. Udal Batzarraren hasieran, autoportuaren hamabost enpresatako ordezkariak mozio bat proposatu zion Udal Batzarrari hipermerkatuaren xedea salatzeko.

Atzo goizean, Battitte Salaberri garraio enpresari eta Autoportuaren Promozio eta Defensako Elkarte presidentearen inguruan hamabost industria, garraio eta aduanetako agentzia bildu ziren mozio bat aurkezteko Udal Batzarrari.

Bildutakoek aurkeztutako mozioren arabera, «orain dela sei hilabete, isiltasunean autoportuaren birmoldatzeko xede erabat komertziala antolatzen ari dira». Moziua izenpetu zuten enpresek salatzen du-

te Udalaren xedea Hendaiaren norabide horiek «industria jarpen xede guztiak» ezerezatutako dituztela azpimarratuz. Moziok gaineratzen zuenez, «kanpoko enpresen lur eskaera batzuk erantzunik gabe gertatzen dira». Beraz, moziok Udalari hipermerkatu xedearen gelditzea eskatzen dio. Hau eskatzeko zio nagusia xede hau «Hendaiako geroko interes ekonomikoen aurka joatea» da protesta egin dutenek azaldu bezala.

Orain dela hilabete batzuk, bost sozietate handi Hendaiako Udal sozialistarekin harremanetan sartu ziren, autoportuan diren hamabost hektare libreak okupatzeko. Azpimarra daiteke Europako neurri berriekin autoportuaren funtzioa aldatuz doala eta lekua birmoldatzen ari dela. Zentzu honetan, Udalak proiektu batzuk bultzatu nahi ditu eta proiektu hauetan hipermerkatu bat jartzeko asmoa nabarmentzen da besteen artean.

Udalaren xedearen arabera, hipermerkatu handi bat eraiki behar litzateke autoportuan. Bost hipermerkatu handik Hendaiaren jartzeko asmoa dute: Carrefour (Sogara sozietatea), Continent (Promodes sozietatea), Casino, Auchan eta Inter-marché. Gainera daiteke ere xedearen arabera autoportuan orain libro diren 15 hektaretik parte handiagoa izan litekeela hipermerkatuarentzat.

Horregatik, Baiona aldeko ekonomia arloko iturriek EGUNKARIARI deklaratu zuten: «Azken sei hilabete hauetan industria xede batzuk ukatuak edo erantzunik gabe egon dira Hendaiaren. Txarrena, 1991ko udan izan zen Hendaiako Udal Batzarrak ez bait zuen gehiago onartu nahi Papelera Guipuzcoana-ren industrial xedea autoportuan, kontratu izenpetu baino hilabete bat aurretik. Azkenean, Papelera Guipuzcoanaren Papeteries de l'Atlantique lanak eraiki zuten Hendaiako Udalaren presioen ondoren.»



J. Bengoa

PIANOAK • HI-FI • MEGAFONIA

Boulevardeko Arkupea, 20 DONOSTIA Tfna.: 943-423703